

Garaikideak izan ziren Pastor Izuela eta Fernando. Fernando baino hamasei urte gazteagoa zen Aiako bertsolaria, Fernandok 58 urte harapatu zituen, eta Izuelak 57. Eta garaikideak izan zirenez, seguru asko behin baino gehiagotan egingo zuten elkarrekin bertsotan.

Antonio Zavalarenak dira ondoko lerrook: «Aldi artan Pastor Izuela Tolosan zan, ferira joanda. Pipa erretzen ari zan, da alako batean orazaltzen zaio Pernando Amezketarra, onela esanaz:

–Ixuela, ekak pipa bete tabako!
Ta Pastorrek bertso onekin erantzun zion:

Errondilla kaleko
bigarrenengo dendan
tabakua saltzen dek
diruaren prendan;
nei librako pezta bitik bera
etzidatek eman,
i're juan ai da esango diek
zenbatian saltzen dan.

Ta orduan Fernandok onela erantzun zion:

Emen ebiya ai dik,
mendietan laño

onuntz etorri baño,
loitan sartuko al aiz
ipur-zuloraño!»

Beste kapitulu batean, Fernandoren oroitzapena nola gorde zen deskribatzen du Oterminenek. «XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, kultura-munduak eta kazetaritzak zabaldu zituen, batik bat, Fernandoren ateraldiak. (...) Zeregin honetan, Euskalzale, Ibaizabal, Euskal-Eria eta Euskal Esnalea publikazioak aipatu beharko genituzke». Eta Oterminenek uste du, bestalde, Patrizio Orkaiztegi apaiza giltzarri dela Fernandoren ateraldien zabaltze horretan. Andoainen 1840an jaioa, Tolosako artzipreste izendatu zuten 1880. urtean, eta Euskalzale aldizkarian artikulua publikatu zuen Fernandori buruzkoa, ordu arte ezezagunak ziren datuak eman zituelarik.

Aspaldiko esaera da Fernando modu zelebrea hil zela, aran asko jan ostean urez bete zuelako sabela. Otermin bat dator Julian Bereziartua medikuaren hipotesiarekin: seguru asko minbizi batek eraman zuela Fernando mundu honetatik.

Javier Aramendi, poesia alaiak egiten dakien gizona

■ F. I.

DONOSTIA. Javier Aramendi Gallardok (Madril, 1959) bere lehenbiziko liburua plazaratu du, 'Verba polita' olerki-bilduma. Ez da hala ere aurpegi berria: gaztetan lanak publikatu zituen Susa, Xaguxarra eta Durangoko Ibi-dem eta Ibaizabal aldizkarietan. «Literatur sarikeketara ere aurkeztu nintzen, ez nuen saririk lortu –zorionez, beharbada–, eta sekula iritsi ez zitzaizdanez epaimahaikoen iritzirik edo komentariarik, utzi nion idazteari», esan zuen atzoko aurkezpenean. Baina harra hor zegoen, eta iazko urtean berriz ekin zion. Bere 'opera prima' honetara azkenaldiko

poemak baino ez ditu ekarri.

Halako joko bat egin du Aramendik: gizakiaren aroen arabera antolatu ditu atalak. 'Haurtzarokoak' delakoan poema jolastiak daude. 'Nerabezarokoak' atalean, berriaz, «sasi-esperimentu» batzuk irakur daitezke. 'Oraingoak' da hirugarren atala, eta hor ale intimista samar batzuk daude. Eta azkeneko atalean, 'Zahartzarokoak' deritzan horretan, nostalgiko tonua da nagusi.



Javier Aramendi.


si.

Erein etxearen bidez plazaratu du liburua, eta bertako editorea, Iñaki Aldekoa, pozik agertu zen atzokoan: «Oso poesia ludiko eta alai dago li-

buruan. Ze ondo!» Aldekoaren iri-tziz, «forma zaintzeko ahalegin handi bat» egin du poetak.

Aramendik honela deskribatu zuen emaitza: «Ez da gai baka-rrekoa, ez da monotematikoa. Baliapideei dagokienez, askotan erabili dut elkar-rrizketa, baita hildakoeekin ere. Oro har, tonu narratiboa dago, eta zenbaitetan epikoa. Ideiak modu zuzenean daude adierazita. Bertso librea da nagusi, baina erritmoa eta musikalitasuna zainduta. Esango nuke poema guztietan istorio txikiren bat kontatzen dela».

Madriren jaio zen Aramendi, baina hiru urte zituela Durangora ekarri zuten. Institutuko irakaslea da eta azken urteak Donostian eman ditu, Usandizagakoan.



VERBA POLITA
JAVIER ARAMENDI

Generoa: Olerkia.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 126.
Prezioa: 14 euro.